HIZKUNTZA BATEN IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHARREKO TARTEHIZKUNTZ OSAKETA: SISTEMA INFORMATIKO BATEN DISEINURAKO AZTERKETA PSIKOLINGUISTIKOA

LABURPENA

Txosten hau hizkuntza baten ikaskuntza prozesuaren ikerketarako sistema informatiko adimendun baten oinarri psikolinguistikoa dugu. Sistema informatikoaren helburu nagusiena izango da: ikaslearen ikaskuntza prozesuari buruzko informazioa jasotzea; ikaslearen tartehizkuntza aztertzea; tartehizkuntzaren osaketan egon daitezkeen arrazoien hipotesiak lantzea; eta azkenik, ikaste-estrategiek tartehizkuntzaren osaketan duten eragina ikertzea. Honetarako, oraingoz, tartehizkuntzaren konpetentzia gramatikala hartu dugu aztergai, eta, konkretuki, egitura desbideratuetara murriztu dugu ikerketa. Edozein kasutan, azken helburua tartehizkuntza bere osotasunean lantzea izango denez, diseinatzen ari garen sistema informatikoa irekia izateaz gain, independentea izango da ikasten den hizkuntzarekiko. Beste alde batetik, sistema inkrementala izango dugu, hau da, etorkizunean aukera izango dugu ikaslearen konpetentzia komunikatiboa aztertzeko tresna informatiko berriak sistema berean gehituz. Hau guztia dela eta, txosten honetan ondoko kontzeptuak aztertuko ditugu sakonki: desbideratzeak, tartehizkuntza, fosilizazioa eta ikaste-estrategiak, azkenean azal mailako eta sakoneko desbideratzeen sailkapenak lortuko ditugularik.